



Europa: Retos en la gestión sostenible del litoral



Itsasertzeko antolamenduaren, kudeaketaren eta gobernantza eredu berrien Europako, Estatuko eta tokian tokiko esperientziak eta ekimenak ezagutu ahal izango dira.

Uzt. 18 2025

Kod. E08-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 18 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Kostaldea antolatzeko eta kudeatzeko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu berri zaizkio, eta ezinbestekoa da horiei ekiteko kostaldea osotasun ikuspegitik aintzat hartzea, izate jarraitu eta bakar gisa, eta ingurumen, ekonomia eta gizarte balioak uztartzea.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoaren osoko bilkurak, 2024ko abenduaren 16an, besteak beste, herri-jabariko emakidak eta baimenak kudeatu eta emateko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakia hartu zuen, zorbide eremuetan eta itsasora sartzekoetan.

Itsasertzaren antolamendua eta kudeaketa hainbat arau juridikok erregulatzen dute; izan ere, ingurune horren babesa eta erabilera hirigintzaren, ingurumenaren, turismoaren edo aisialdiaren ikuspegitik jorratzen da. Hala, itsasertzaren antolamenduaren eta kudeaketaren arloko erronka berri horrek lurralde planteamendu koherentea eta transektoriala izan behar du ezaugarri, baita sektore eta gobernantza maila ezberdinen arteko integrazioan eta ezagutzetan oinarritutako planteamendu parte-hartzailea ere.

Gogoratu behar dira, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko maiatzaren 30eko gomendio testua, Europan kostaldeko eremuen kudeaketa integratua aplikatzeari buruzkoa (2002/413/EE), eta baita Batzordeak kostaldeko eremuen kudeaketa integratuari buruz egindako komunikazioa ere, zeinak onartzen duen EBko politika eta tresna gehienek, guztiek ez bada, eragina dutela eremu horietan. Hortaz, Batasunak mahaigaineratzen duen kudeaketa hori prozesu parte-hartzaile, dinamiko eta moldagarri gisa ulertu behar da: fenomeno naturalen eta giza jardueren arteko lotura eta interdependentzia kontuan hartuta, garapen jasangarri integrala, ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa lortu nahi ditu.

Gai horiei eta beste batzuei heltzeko helburu izango da Uda Ikastaro honek. Itsasertzeko antolamenduaren, kudeaketaren eta gobernantza eredu berrien Europako, Estatuko eta tokian tokiko esperientziak eta ekimenak ezagutu ahal izango dira. Zabalkunderako eta topaketarako gune izan nahi du ikastaroak itsasertzaren antolaketan, kudeaketan eta erabileran aritzen diren erakunde eta pertsona guztientzat, baita esperientziak, proiektu arrakastatsuak eta aplikatzeko jardunbide egokiak trukatzekoa ere.

Helburuak

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Zuzendaritza



Koldo Goitia Markuerkiaga

Hazi

Koldo Goitia Markuerkiaga. Técnico de turismo de formación. En el ámbito laboral es técnico de desarrollo territorial de Fundación Hazi fundazioa. Su carrera profesional ha estado y está vinculado al desarrollo local y regional, al desarrollo de las zonas rurales y de las zonas pesqueras de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Durante las dos pasadas legislaturas ha sido alcalde de Lekeitio. Ha sido director y co-director de los cursos de verano durante varias ediciones en temas relacionados con la pesca y el desarrollo litoral.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-18 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-07-18 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa